

BERRIGARA

83. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, azaroak 6

TOKI-EDER:


ETXEBIZITZA
SOZIALAK
ESKURATZEKO
BALDINTZAK
AURKEZTU DIRA

ZAHARREN ASTEA

OSPATUKO DA
MIZPIRUALDEN
DATORREN
ASTEAN

KIROLAK


GORLAKO
V. MOTO
IGOERA
JOKATUKO DA
IGANDEAN



**PABLO IRIZAR ETA IBAN RODRIGUEZ,
ESPAINIAKO TXAPELDUN**

THE LOOK


Burberrys
OF LONDON



egizabal

Marka onenen eksklusibak ditugu!!


CARTUJANO



**Joan den kirol denboraldia
aztertu ondoren, BERGARAKO
UDALEKO KIROL ZERBITZUAK
herri guztiaren aurrean
goraipatu nahi du gure herriko
hainbeste kirolari,
entrenatzaile, laguntzaile,
direktibetako partaide,
jokalarien guraso eta beste
hainbeste lagunak, sakrifizio
eta esfortzu haundiz eta
azkenean kirol emaitzak eta
ondo egindako lanak ematen
duten satisfazio hutsaren truke
kirolaren alde egin duten lana.
Hainbeste lanek jendaurrean
eskertzea ere merezi duelako
ematen dizkizuegu zorionik
beroerak.**

ZORIONAK ETA SEGI HORRELA

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jauriaritza

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereibar

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua: Inaki

Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaian

Kolaboratzaileak: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkorobereibar, J. M.
Elxepuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi, M.
Elkorobereibar, Aitziber
Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I.
Sorondo.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A.
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Garzia, D. Santos, P. Retolaza,
Kiñu eta Pol-Pol Mendizale
Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:


BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek

Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

GAZTETXEA

Gaztetxea izan du-
gu berriz astean zehar
protagonista. Bizi Al-
ternatiboaren progra-
maren barne, larunbat
eta igande gauerako bi
kontzertu iragarrita
zeuden bertan eta
Udalak, lokalak lizen-
tziazirik ez daukala eta
egoera txarrean aurki-
tzen dela ikusirik, a-
tzera egin zuen azken
orduan, beste lokalen
batetara eramateko
proposamena eginez.

Requiem eta *Dax-
kak* aurrera jarraitzea
erabaki zuten bere al-
detik eta programatik
kanpo (*Spokek* ez zuen
jo); eta igandean, ber-
rri, *La Duda* taldeak



ez jotzea erabaki zuen.

Gogoratu dezagun
lokalaren jabea San
Pedro parrokia dela eta
berreskuratzeko asmoz
abokatuen esku jarri
duela arazoa. Parroki-
ak ezer esan nahi ez
badu ere, epaia laister
izango omen da.

Udalak iragarritako kontzertuak suspenditu

ITURRI ONETIK

Jubilatueta obrak aurrera

Martxoan Jubilatuen egoitza berrizteko martxan jarri
ziren lanak aurrera darraite. Astelehenean tabernaren
anpliazioa inaguratu bazen, oraindik emakumeen
ileapaindegia, gutxituen komuna, beheko eta goiko
pisua elkartuko dituen igogailu hidraulikoa eta bola-
toki estalia egitea falta zaio URBE S.L. enpresari.
Hasieran obrak abendurako amaitzea espero zen
baina, epe berria finkatu ez den arren, atzerapena
ziurtzat ematen da.

ESAN DUTE

"Kaletarrak hasi dira
herri kirola
praktikatzen. Gauza
da hortik puntako
kirolariak ateratzea
zaila izango dela.

Herri kirolak
baserrian sortu eta
garatu dira, baserri
lanaren ondorio dira.
Gaur baserririk ez
dago, basogizonak
oso gutxi eta auzia
zera da: industria
girotik nola gorde
herri kirola".

ANDRES OSA
"SAKONA"
irakasle eta kazetaria
EGUNKARIA

"Industria krisian
dagoen arren,
jendeak baserritik
alde egiten du bertan
etorkizun beltza
ikusten duelako.
Euskal Elkarte
Autonomikoan
1.981tik 1.991ra
bitartean, nekazaritza
sektorean lanpostuen
% 54a galdu dugu".

BALENTIN
GABILONDO
EHNEko Gipuzkoako
presidentea
EL DIARIO VASCO

ZUBIAURRE

AROTZEGIA

- Sarrerako eta barruko ateak •
- Horma armairuak • Tarimak •
- Egurrezko eta PVCzko leihoak •
- Era guztietako arotz lanak •

Zubiaurre, 2. 76 15 14 / 76 35 73

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia.

Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

**SIN PERDON**

Ostiraja: 22.30.

Larunbata: 17.00., 19.30. eta
22.30.Igandea: 17.00., 19.30 eta
22.15.**SONAMBULOS**Larunbata: 17.00, 19.30. eta
22.30.**LA VILLA DE LOS
VIERNES**

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ **Clint Eastwood** aktore eta zuzendariak izugarriko arrakasta lortu du *western* honekin kritika eta ikusleen artean. Hil zorian bazegoen ere, besteak beste, **Gene Hackman**, **Morgan Freeman** eta **Richard Harris** bakeroek indartu egin dute beti arrakasta izan duen jenero hau.

▼▼ Umore beltza, erotismoa eta, **Stephen King** tartean egonda, falta ezin daitekeen beldurra nahasten da filme honetan. **Brian Krause** protagonista ez da jendeak uste duen bezain *aingerutxoa* izango.

▼▼ **Julian Sands** eta **Joanna Paculak** protagonizatzen dute **Alberto Moraviaren** nobelan oinarritutako filme hau. Lehen biei **Tcheky Karyo** gehituko zaie amodioa eta zeloak ardatz dituen istorio honetan.

Erakusketak

▼ **B. Zumalde** zornotzarraren *Paisaiak eta herriminak* izenburuko marrazki erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxean asteartera arte, azaroak 10.

▼ **Surra irratizaleek** irrati material eta ekipoen (tartean 1.924ko ekipo bat) erakusketa antolatatu dute. Igandera arte, azaroak 8, Pol-Poleko aretoan.

Farmaziak▼ **Larunbata 7:**

Mozos.

▼ **Igandea 8:**

Mozos.

▼ **Astehena 9:**

Camacho.

▼ **Astearte 10:**

Puy.

▼ **Asteazkena 11:**

Guallar.

▼ **Osteguna 12:**

Estella.

▼ **Ostirala 13:**

Mozos.

Ogia▼ **Igandea 8:** Konde.**ELEKTRO**

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.San Lorentzo 19,
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43**INFERNUKUA
TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

Jaialdia

▼ **Umore Ona** abesbatzaren kontzertua, asteartean, hilak 10, Mizpirualde Egoitzan 19.45etan.

▼ **Musika Eskolako** abesbatza ostegunean, hilak 12, 19.45etan Mizpirualde Egoitzan.

▼ **Musika Eskolako** haize taldea Mizpirualde Egoitzan larunbatean, hilak 14, 19.45etan.

▼ **Xamatx** dantza taldea igandean, hilak 14, Mizpirualde Egoitzan bazkalostean.

Aukeran

▼▼ **Udazken Kulturalaren** programazioarekin jarraituz, igandean, hilak 8, **Traspasos** taldearen "Siellas" dantza emakizuna izango da arratsaldeko 7etan Mariaren Lagundian. Musika eta dantza tartekatzen duen ikuskizun gomendagarria. Sarrerak 400 pta. balio du eta Kultur Etxean zein Mariaren Lagundian (egunean bertan) eros ditzakezue.



Kirolak

▼ Futbola:

• **Bergara-Aretxabaleta** (infantilak). **Larunbatean** 8.45etan Ipintzan.

• **Bergara-Aloña-Mendi** (2. mailako errejionala). **Larunbatean** 15.45etan Ipintzan.

• **Bergara-Zarautz** (lehen mailako jubenilak). **Igandean** 10etan Ipintzan.

• **Bergara-Mutriku** (lehen mailako kadeteak). **Igandean**, 12etan Ipintzan.

▼ Eskubaloia:

• **Bergara-Jauja** (kadete neskak). **Larunbatean** 15.30etan Kiroldegian.

• **Bergara-Jauja** (gazte mutilak). **Larunbatean** 16.45etan Kiroldegian.

▼ Saskibaloia:

• **Ibili Bergara-Ariz Basauri** (senior gizonak), **larunbatean** 18.30etan Kiroldegian.

• **Bergara-Zabor** (kadete neskak), **igandean** 10.30etan.

• **Bergara-Zarautz** (gazte mutilak), **igandean** 12.15etan.

▼ Futbitoa:

• **Futbito Txapelketa astebukaeran** Kiroldegian.

5

PROFESIONALAK

• Telletxea eta Garaita Kalonge eta Andueza V.aren aurka.

• Etxaniz eta Armendariz Gofi eta Martinikorena-aren aurka.

(Ez da 3. partidurik jokatu)

Larunbatean,
aratsaldeko 16.30etan
Udal Pilotalekuan.

MUJIK A

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

☎ 76 28 67

BERGARA

EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

Maitasun eta konprentzioaren eliza?

Vaticanok Eliza Katolikoaren Dotri-na berriari darion intolerantzia eta an-kilosamendu lezioaren ondoren gure onera etorri ezinean gauden honetan eraso berria dugu gure artean.

Elizak, orainartean, gutxi egin du HIESaren arazoaren inguruan, ez bada horrekin bizi direnak gaitzestea (nahiz eta salbuespenak izan badiren). Eta zera dioskue oraingoan, seropositiboek ezkontzeko eskubidea ukatu behar zaiela (DV, 92-10-16, 22. orrialdean argitaratutako albistea). Zeintzu diren argudioak? Izenik eta koherentziarik gabekoak.

Hori dela eta, Bizkaiko TXO HIESA, Deba Garaiko Guaien Taldea eta HIES EKIMENA taldeok argi utzi nahi dugu honeko hau:

1.- Gure haserrea adierazten dugu Vaticanoko Eliza Katolikoa zentzurik gabe gure bizitzetan, gure askatasunean eta bizitza duina izateko dugun eskubidean sartu delako.

2.- Gure harridura azaltzen dugu uste bait genuen Kristoren mezua MAITASUNA eta KONPRENTSIOA zela, sufritzen ari denarentzako laguntzea, hain zuzen ere.

3.- Ezkontzaren edo bikote-bizitzaren egitekoa birsorkuntza hutsa baino gehiago dela uste dugu, eta sexualitate

koitua baino askoz gehiago.

4.- Ezin da (ez dugu utziko) seropositiboak bakardadera zigortu eta are gutxiago errudutzat jo eta heriotz-irudi faltsu bihurtu.

5.- V.I.H. kutsatzetik babesteko erremedioa duela mende bat baino gehiago ezagutzen dugu: preserbagailua- ren erabilera.

Ezin dugu onartu Vaticanoko Elizak bere hutsezintasun eta goi-inspirazioa- ren tronutik gizadiuntasunaren kontra horrelako erasoak egitea.

HIES Ekimena

Desinformazioa zuzentzen

Pasa den urriaren 30eko (ostirala) EGIN egunkariaren Bergarako kronikan agertutako baieztapen guztiz faltsoei erantzuna eman beharrean nago, gauzak bere lekuan uzteko.

Azoka berriaren (eta San Martin Plazako lehengo zaharraren) historiaren bilakaera oso luzea, ustekabez betea, desatsegina eta diru aldetik kostu ikaragarrikoa (batipat Bergarako Udalarentzat, hau da, bergarar guztiontzat) izan bada ere, ez da bidezkoa aipatutako artikuluan azaltzen diren iritzi burlazkoak ematea.

Esate baterako, ezin da, gauzen be-

rri zehatz jakin gabe, idatzi "HBk egindako proiektuan sotoetarako aparkalekuak behintzat aurreikusten zirela"; bukatzeaz dagoen obra hau Jose Luis Elkorok, udal-hauteskondeak baino 27 egun lehenago, adjudikatu eta hauteskundearen ondoren Udalaren aldaketa egin bitartean hasitakoak direnean. Bukatzeaz dagoen proiektua HBk egindakoa da.

Ez da zuzena, halaber, "saltzaileek, berek bakarrik ordaintzen dituztenik oraingo azokako gastu guztiak". Udalak 280.423 pta.ko errenta ordaintzen du hilerio edifizioaren erabilpenagatik. Saltzaileek, gastatzen duten ura eta argindarra ordaintzen dute eta horregatik kezak badira, lehengo azoka zaharrean gaizki ohituta (ezer ez ordaintzera) zeudelako da. Baina, herritar- rarak ados ote daude Udalak partikularren gastuak ordaintzearekin?

Azkenik, gezur hutsa esatea da, "Alkatea, deitu izan zaigun bilera batera ere ez da agertu" esatea. Hirigintza Batzordera, eraikuntzaren eta postuen ezaugarri teknikoak azaltzeko deitu zitzaizen bilera kenduta, beste bi bileretan izan naiz interesatuekin, batean obra tokian eta bestean berek legez izendatu duten ordezkariarekin.

Bergarako Alkatea

Tiira ba!



Josu Okino

☐ **Mus txapelketa**
Datorren larunbatean, hilak 14, III. Egin Mus Txapelketako kanporaketak (8 erregetara) jokatu dira Ozaetako Belengua tabernan arratsaldeko 4retan. Izena emateko Pol-Pol, Arrano, Oilagorra, Ortzi edota Belengua bertara jo dezakezue. Osintxun, berriz, hilaren 20an jokatu dira mus kanporaketak (4 erregetara) Txuringo Jatetxean.

☐ **Salaketa**
Udaleko Gobernu Batzordeak urriaren 24ean *Banco Gulpuzcoanoren* ondoan topatu zen lehergailua eta horren ondorioz izandako sutea aho batez publikoki salatzea eta gaitzes-tea erabaki zuen.

Etxebizitza sozialak eskuratzeko baldintzak kaleratu dira

Asteazkenean aurkeztu ziren Toki-Ederren egin beharreko etxebizitza sozialak eskuratzeko baldintzak. Guztira, 63 etxebizitza adjudikatuko dira, 5 Udalaren esku geratuko direlarik: 28 etxebizitza 1.1 modulokoak (merkeena 7.527.700 pta. eta garestiena 9.983.000 pta.) eta gainontzeko 40ak 1.2 modulokoak (8.557.000-11.013.251 pta. tartean, prezio guzti hauei B.E.Z.a gehituz) eraikiko dira.

Eusko Jaurlaritzak ezarritako baldintzen arabera, 1.990eko urtarriaren leian Bergaran erroldatua edota 1.990, 1.991 eta 1.992an zehar 24 hilabetez Bergaran lan egin izana, norbere etxebizitzarik ez izatea eta gutxienezko eta gehienezko diru sarrerak edukitzea (hartzaile batentzat



1.689.823 eta 6.291.936 pta. dira minimuna eta maximuna eta bi hartzaileentzat 1.882.352 eta 7.450.976 pta.) eskatzen da. Era berean, familiakideen kopurua hartuko da kontutan: 2 logelatakoak 1, 2 edo 3 bizikiderentzat, 3koak 4 edo 5entzat eta 4 logelatakoak 6 edo 6tik gorako lagunentzat.

Eskariak aurkezteko

epea azaroaren 9tik abenduaren 9a bitartean egongo da zabalik Udal Bulego Teknikoan eta adjudakazioa urtarrilaren bukaeran, notario baten aurrean, zozketa bidez egingo da. Argibide eta azalpen guztiak emateko bilera informatibo bat izango da asteazkenean, azaroak 11, 19.30etan Novedadesen

Amaiera bikaina

Joan den igandean amaiera bikaina eman zitzaion astebetez gure herrian ospatutako Bizi Alternatiboaren VI. edizioari. Plazan bildu zen jendeak Taun-Taun txotxongiloak, liburuazokak eta bizikleta-martxa ikusteko aukera izan zuen eta, horrez gain, salda eta txorizoa banatu zitzaientz jai-giroaz gozatu zuten guztiak. Gauerako iragarritako zegoen La Duda taldearen kontzertua, berriz, bertan behera uztea erabaki zen Udaleko Gobernu Batzordeak Gaztetxeak neurri egokiak betetzen ez zituela erabaki ondoren.



Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g.

☎ 76 05 01

AE
ELKORO

Elektronika Arrasate, E.A.

Canal + eta Sony

Banatzaile ofizialak

Gure denda berria ezagutu ezazu

Olarte, 1 Tfnoa: 79 18 86. Faxes: 77 09 36.

ARRASATE

□ **Inaguraketa**

Gaur ostirala, hilak 6, hasiera eman zaio UNEDeko aretoan zentru honek antolatutako Kontsumo masterrari. Fernando Etxeberriak zuzenduta, bi ikasturteko master honetan 21 ikaslek hartuko dute parte eta klaseak ostiralez (17.00etatik 22.00etara) eta larunbatetan (9etatik ordubietara) izango dira.

□ **Altzasun Jai**

Udazkenarekin Altzasun jai programazioarekin jarraituz, bazkideek Gaztainarre eguna ospatuko dute datorren igandean, azaroak 15. gaztainak, txokolatea eta txurroak izango dira arratsaldeko betan. Bestalde, azaroaren 22rako, ibilaldi neurtua eta bazkideentzako bazkaria iragarri dira. Izena emateko epea azaroaren 16an bukatuko da.



Lan istripuak

Pasa den larunbatean, hilak 31, Elgetako Pagatza Poligonoan lan istripu bat gertatu zen, portugaldar hiru langile bost metroko altuera batetik jausi zirelarik.

Itxura denez, aipatutako langileak arratsaldeko ordubatak aldera, solairu batetan hormigoia botatzen ari zirela gertatu zen istripua eta, horren ondorioz, bi langilek zauri larriak jasan zituzten eta hirugarrenak garrantzirik gabeko kolpea hartu zuen. Gurutze Gorriak lehen biak Arrasateko Eritetxera eraman zituen eta hirugarrena,

ostera, Zumarragara.

Bestalde, asteazkenean, azaroak 4, Burdiñate parean *Construcciones Arregien* presak burutzen ari duen obretan bigarren istripu bat izan zen.

Arratsaldeko 6^{ter} aldera, Iñaki O.L. eta Santos O.G. langileak 5. pisutik 4.era jausi ziren eta biak kolpe larriak jasan zituzten, batak buruan eta besteak izarrean.

Pertsona batek abisatuta, Gurutze Gorria berehala aurkeztu zen istripua gertatu zeneko tokian eta zauritutako bi langileak Arrasateko Eritetxera eraman zituen.

□ **Atxiloketak**

Ertzaintzak Maria Carmen J.J. eta Catalina A.E. 22 urteko gazteak atxilotu zituen astearte eguerdian Bergaran, gutxienez, 10 zaharrei Bergara, Zumarraga eta Arrasateko bankuetxe ezberdinetatik erretiratutako dirua lapurtzeagatik. Atxilotu baino lehen emakume bati 35.000 pta. lapurtu zizkioten herriko komertzio batetan eta detenitzeko orduan 30.000 pta. zeramaten. Lehen lapurretak apirilaren amaieran egin zituzten eta ordutik 10 denuntzia egin izan dira. Bestalde, astearte gauean Bilbotik SS-8426-AK matrikuladun kotxean zetozen Eloy B.I., 21 urtekoa, eta Eusebio M.H., 41 urteko bergararrak atxilotu zituen Ertzaintzak, preserbatibo batetan heroina gordeta zeramatela.

ZUBIETA

elektragintza


- ✓ Motorren bobinaketa
- ✓ Era guztielako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



Zaharren astea

Urtero bezala, datorren astean zaharren astea ospatuko da Mizpirualde Egoitzan.

Aurten ere ekitaldi ugari prestatu dira eta zaharrek izango dute bai jolas, dantza edota musikarako aukera. Astelehenean, azaroak 9, txokolatada eta dantza izango da 4.30etatik aurrera. Asteartean tute, mus, puntto, domino eta rana txapelketak jokatuko dira merienda amaitutakoan, 5ak aldera, eta 19.45etan Umore Ona abesbatzaren kantaldia izango da. Asteazkenean, berriz, merienda eta dantza

16.30etan. Ostegunean, zozketa 5etan eta Musika Eskolako abesbatzaren emanaldia 7.45etan. Ostiralean, "Madre Teresa de Calcuta" bideo emanaldia 5etan, eta 7.45etan Musika Eskolako Haize Taldearen emankizuna. Eta amaitzeko, igandean, eukaristia 12etan, bazkaria eta, ondoren, sari banaketa eta Xamatx dantza-taldearen emanaldia.

Alazne Irazabal Gizar-te Laguntzailearen esanetan, "erantzuna beti ona izan da eta aurten ere bergarar guztiei aste honetarako gonbidaketa egin nahi diegu".

Txinpartak

✓ **Acualderen** bulegoa Koldo Eleizalde kaleko 3. zenbakira pasa da. Edozein kontsulta egin edota informazioa jasotzeko arratsaldeko 3retatik 7etara bertatik pasa zaitezke.

✓ **Futbolin txapelketa** jokatuko da Pol-Pol tabernan ostegunean, hilak 12, arratsaldeko 8etan. Irabazleek 15.000 pta.ko saria eskuratuko dute.

✓ **Juan Antonio Unzurrunzaga** Pol-Pol Argazki Taldeko kidearen argazki erakusketa Elorrioko Kultur Etxean ikusgai izango da azaroaren amaierara arte.

✓ **Herri Batasunak** dei egiten du larunbatean, hilak 7, arratsaldeko 4retan egoera politikoa eta udal informazioa aztertzeko egingo den Herri Batzarrean parte hartzeko.

✓ **Beira edo kristalean**, eskaiolan eta ohialean pintatzen ikasteko eskulan ikastaroa hasiko da azaroaren 9an Antzuolan. Izena emateko Udaletxera edota udal liburutegira jo dezakezue.

✓ **Soldados de juguete** filmea eskeinitako da igandean, azaroak 1, Novedadeseko matinallean, goizeko 11 terdietan.

GOIERRI

Autogidariaren eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

P. MANSO
Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa: 76 27 86

HARATEGIA

ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

MAKAILO

Makailau **ETXEA**
kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargaral 15

Kontxita eta Martina Plazako periodiko saltzaileak erretiratu egin dira

Kontxita Ugalde eta Martina Maiztegi, Plazako periodiku eta errebista saltzaileak aste honetan erretiratu zaizkigu. Kontxitak bere bizitzako 50 urte eman ditu herriko periodista lanetan eta, orain, berari tokatu zaio albiste izatea.



Kontxita eta Martina lehengusiñak dira eta 22 urtez elkarrekin lan egin dute.

- Inor baino hobeto ezagutuko dituzu, Kontxita, bergararrok irakurtzerakon ditugun obiturak...

- Egia esanda gazteek zaharrek beste irakurtzen dute Bergaran. Behar bada Egin gazte jendeak irakurtzen du batez be eta El diario, ostera, zaharrek erosten dute batipat. Asko saltzen da Bergaran eta neguan udan baino gehiago. Eta larunbatean, normala denez, suplementoak direla eta, beste egunetan baino periodiko gehiago saltzen dira.

- Eta Francoren denboran, esaterako, borrenbeste irakurtzen al zen?

- Orduan be asko saltzen zen, nahiz eta aukera hain zabala ez izan. Lehen El diario, La voz de España eta Gaceta del Norte zeuden. Orain, berriz, denetik dago: madriderak, hemengoak eta narparrutik ere heltzen dira batzuk.

- Gogoratzen al duzu ze egunetan saldu den periodiko gehien?

- Ba ez dakit. Behar bada Realak lehen aldiz liga irabazi zuenean.

Orduan euforia handia zegoen eta jendeak denetik erosten zuen. Hauteskunde egunetan ere asko igartzen da...

- Pedido berezirik egin al dizute inoiz?

- Ez, sekula ez. Hemengoak oso gipuzkoarrrak gara eta bertakoarekin konformatzen gara.

- Akordatzen al zara zenbat balio zuen periodiko batek lanean hasi zirenean?

- Ez dakit 15 pta. edo zenbat zen. Igual 5 be bai. Auskalo...

- Eta zeintzuk dira periodiko eta errebista

salduenak?

- Ba duda barik El diario saltzen da gehien eta errebistak, ba, prensa del corazon horretarikoa. Hola, Lecturas, Semanario...

- Asko irabazten al du da periodikoekin?

- Danetik dago hementxe, baina, tira, perdidarik ez dago. Ez dakit zenbat irabazten den saldutako periodiko bakoitzeko.

- Bukatzeko, kristak eragina izango al du eraginik prentsan?

- Ez dut uste, jendeak bere inguruan gertatzen dena jakin nahi izaten du eta.

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

UDAZKEN KULTURALA

Azaroak 8, igandea

Arratsaldeko 7etan, Mariaren Lagundiko aretoan
Traspasos taldearen "SIELLAS"
 dantza emankizuna

OILAGORRA

Ehiza eta Arrantza Elkartea

Oilagorra elkartera inguratu, eta Jabier Alberdi lehendakariarekin eta Floren Yarza idazkariarekin izan genuen berriketaldiaren ondorengo dugu guzti hau.

Itxuraz, bazen Bergaran gerra aurretik zetorren «Caza y Pesca Oilagorra» izeneko ehiztari eta arrantzaleen talde bat. Taldeak leku finkorik ez zuenez, han-hemenka ibiltzen ziren elkartu behar zuten bakoitzean eta honela elkarte bat sortzeko asmoa izan zuten. 1967. urteko abenduaren 8an bete ziren beren nahi guztiak, Oilagorra elkar-teko atek zabaldu zirenean. Beraz, aurtengoan 25. urteurrena ospatuko dute.


135 bazkide dira, eta bi omen daude sartzeko zai. Bazkideen batzuek bes-teko adina 50 urte ingurukoa da, baina azkenaldian gazteria hasi omen da sartzeko elkartean.

65 urte betetzean baz-

kidea jubilatuta egiten da eta handik aurrera ez du kuotarik ordaintzen baina botoa ezik gainontzeko beste eskubide guztiak gordetzen ditu. Horretaz aparte, anai, seme edo suhiak bete dezake jubilatuta denaren tokia. Ohorezko bazkideak ere badira bi Oilagorran: Jesus Agirre eta Migel Okina.

Pertsonaia ezagunak ere elkartean: garai batean Simon Arrieta izan zen bazkide eta orain Gaztelu, Errealeko jokalaria izandakoa ere bada.

Urtean 3.500.000 pzta.ko kaja egiten dute eta kontsumoari horretan eusten zaio azken urtee-



tan.

Sukaldean moldatzen direnak eta denetik ger-

tatzeko gai direnak ere hainbat omen dira: Zubikoa, López, etab. Baina beste batzuk sukaldetik kanpo azaltzen dituzte beren abileziak. Garmendia eta Kruz Orbe, esaterako, maisu haundiak dira eskopetarekin.

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1.967ko abenduaren 8an.

BAZKIDEAK: 135.

HELBIDEAK: Irizar, 3.

PRESIDENTEA: Jabier Alberdi.

ELKARTEAREN EGUNA: abenduaren 8a.

URTEKO KUOTA: 8.000 pzta.

LXUKLIN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE

PRiMi

- Mariskoak, arrain fresko eta izotuak .
- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90
San Antonion Tfnoa: 76 21 08
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91

MINER

Ardo onak,

ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

Pablo Irizar: "Españiako txapelketa bat ez da egunero irabazten"

Pablo Irizarren kasua oso nabarmena da kotxe gidarien munduan. 26 urterekin hasi zen Estatu-ko zirkuitoetara joaten bere gidari trebezia erakusteko. Kirol munduan nahiko berandu hasi zen arren, beti izan du barruko dehi bat: "ni txikitatik aitarekin futbolera joan beharrean, kotxe lasterketak ikustera joaten nintzen eta honek betirako sartzen dizu kotxe-arenganako grina" esan zigun Pablok. Gidari honek beste askok bezala, aitari erosi zion bere lehen kotxea, 4L bat, baina bere abiadura gosea asetzeko ez zen nahikoa eta 26 urterekin bere lehen proban parte hartuko zuen Citroen AX kopan.

Estatu mailan jokatzeko AX kopa irabazi ondoren Pabloren gidari karrerak sekulako gorakada izan zuen, berak dioen moduan "ni mundu bonetan hasi nintzenezan estatu mailako monomarka txapelketa bat irabaztearekin konformatzen nintzen, baina Renault Clio kopa hau irabazi ondoren orain nire hurrengo helburua Turismoentzako txapelketa irabaztea izango



Pablo Irizarrek 3 lasterketa irabazi ditu aurt...

litzateke". Pablori aurtengo denboraldian egindako emaitza bikainek konfidantza osoa ematen diote turismoetara pasa-

tzeko "aurten zortzi karreratik bi korritu gabe utzi nituen, baina txapelketarako sei lasterketa dira puntuagarriak, sei

lasterketatik biru irabazi nituen, bi bigarren egin nituen eta azkenengo karreraren, Jaraman, 6. egin nuen". Pablok argi utzi zuen txapelketako gidaririk onena dela, lehen biran arazo batzuek eduki ondoren 28. postuan gelditu zen, baina hortik aurrera aurretik zihozten gidari guztiak pasatu eta azkenengo biretan Bergararik joandako kotxezaleak agurtzeko beta izan zuen.

Hurrengo denboraldian, turismoen kategorian, BMWn korritzeko aukera haundiak ditu.

Pablo Irizar

"215 Km. orduko abiadura korritzen ari naizenean eta aurrenean eta alboetan beste kotxe bat dagoenean, uff...hori ezin daiteke deskribatu"

"Iban Rodriguezek patxada handiz gidatzen du eta horrela jarraizten badu, formuletara hel daiteke"

Tximak
Ileapaindegia

Fraikoazurl 3, Tfnoa: 76 56 69

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitate-dun kamisetak
- Oihai inprimaketak

San Lorenzo, 7
behea. Tel. 76 50 39

Iban Rodriguez, etorkizun haundiko gidaria

Iban Rodrigezek bost urte daramatza lau erruberren munduan, berak dioen bezala, "aitak erositako kart batekin hasi nintzen korritzen eta Euskadi, Katalunia eta Estatu mailako txapelketak irabazi nituen, eta beti ere lehenengo seien barruan ibili nintzen".

Garaipen zerrenda bikain honekin, Ibanek Renault Clio Iniciacion kopan partehartzea erabaki zuen. Clio kopan iaz hasi zen korritzen, hirugarren eta bostgarren postu bat lortuz, honek izugarriko morala eman ziolarik aurtengo denboraldian zerbait lortzeko.

Iazko emaitza on horiekin Ibanek aurtengo denboraldirako helburu bakar bat zuen, lehenengo postua eta Ibanek dioen moduan "baseratik bane-kien lehen postua eskuratu nezakeela, baina ez nuen espero bain erraz irabaztea bederatzi karreratik

bost irabazi ditudalako".

Baina izan ditu momentu txarrak ere "laugarren karreran, Bartzelonan, lehen postuan nindoanean txapelketan bigarren gelditu denarekin iskanbila bat izan nuen eta epaileek kanporatu egin ninduten eta honek nabiko urduri jarri ninduen".

Igande zoriontsua

Urduritasun hau pasaden igandean bukatu zen Ibanentzat, Clio kopa irabazteko hirugarren geldituta ere nahikoa

zuen eta Ibanek argi utzi zuen gidaririk azkarrena dela, lehen biratik aurrea hartu eta karrera osoan

zehir, beste gidari guztiek, bergararren kotxea urrunetik ikusi bait zuten. Helmuga pasa ondoren sekulako poza sentitu zuen Ibanek "podiumean lore koroa bizkarrean ipini zidatenean eta Bergaratik etorritako lagunak ikustean, autobus bat joan zen Bergatitik, ia pozaren pozez negarrez hasi nintzen".

Hurrengo urterako dituen asmoei buruz galdetzen diogunean esan digu badituela eskaintza batzu, baina oraindik normala den moduan ez digu esan zeintzu diren.

Iban Rodriguez

"Pablo Irizarrek kurbak oso erraz hartzen ditu, gidari oso hotza da, karrera osoa buruan dauka, berak jarraitutako bidea urratzea gustatuko litzaidake"

"Nire entrenamenduak egiteko Jaramara joan behar dut, Euskalerrian ez bait dago kotxe zirkuitorik"



Iban Rodriguez, Montmeloko podiumean.

LAKET

Gizon Emakume
Barrenkale 35 BERGARA

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

Foto Sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

Nork izan beharko luke lehentasuna etxebizitza sozialak erosteko?



Gorka Gisasola
24 urte, langilea

Ba, diru gutxien duenak. Jende zaharra eta gaztearen egoera ere aztertu beharko litzake.



Asunción Zorrilla
58 urte, etxekoandrea

Nere ustez ezkontzean dauden bikoteek eta beharra duen jendeak.



Karmele Ormaetxea
36 urte, langilea

Printzipioz premia ekonomiko haundiena duenak. Eta gutxienezko soldata dutenei ere aukera eman.



Patxi Barrutia
66 urte, jubilatua

Analisi bastante sakona egin behar da hortarako, adibidez soldata eta familiaren egoera aztertuz.

**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

BERGARAKO LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA

OHARRA:

1.987tik 91rainoko Maestria Tituloak jasotzeko daukazuenok, pasa zaitezte lehenbailehen eskolako idazkaritzatik tituloak hartzera.

LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA.

Ibargarai, 1 BERGARA.

☎ 76 38 40.



**Gasteizen
ere jardun**

Dexente aldatu dira gauzak gazte-gaztetan Gasteizen bizitzen jarri etakalean euskaraz entzunez gero, harrিতa, "Ostia, hi euskalduna haiz, ala?" galdetzen genuenetik hona.

Gaur egun hamabi bat mila euskaldun eta beste hogeita hamar bat erdi euskaldun dago bertan. Euskaraz egitea, hala ere, ez da erreza gertatzen. Euskaldunon dispersioak eta elkar ez ezagutzeak nekeztu egiten baitu beronen erabilera eta kalean dagokion presentzia.

Hau dela eta, sakabanatuta gauden euskaldunok batu eta euskaraz bizi ahal izateko oinarriak jartzeko ahaleginetan sortu da oraintsu, beste hainbat Euskal herritan bezala (eta, jakina, zenbait "alavés"en "txarreritziarekin"), elkar eta bere inguruan GEU GASTEIZ herri aldizkaria.

Dagoeneko, zenbait ekitaldi antolatutak ditu eta aldizkariaren 0 alea ere kalean da; urtarriletik aurrera hilabetero ateratzeko asmotan, gainera.

Beraz, hemendik aurrera, badakizu, ez egin 945... telefonoa markatu eta "Bai, ersan" entzun zuenenan "Baina hori ez da Gasteiz, ala?" erantzun zuenarena. Han ere, ahal dala, jardun!

Iñigo Barruso



**Bill Clinton
garaile**

Astean zehar, komunikabide guztien bidez jarraitu ahal izan dituzue Estatu Batuetako hauteskundeak. Dakizuenez, Bill Clinton, 45 urteko demokrata "gaztea" izan dugu garaile eta lehendakari bihurtuko da laister. Badirudi, kazetari guztiek jarri duten arreta ikusi eta gero, hauteskunde hauek garrantzi izugarri izan dutela ekonomia kanpaina eta hauteskundeetan oinarritzko faktorea bihurtu delako.

Gai hauetan jakintsuek, hautagaiak eta partiduen programak ikusita ezberdintasun haundirik ez dagoela esaten dute. Amerikan ezberdintasuna hautagaietan datza. Berrikuntzak datoz "Casa Blanca"ko etxejauna aldatzen denean eta amerikarrek aurpegi berri bat nahi zuten. Ez da ahaztu behar konserbadoreek 12 urtetan Esatu Batuetako gobernua bere eskuetan eduki dutela. Eta ez dute zuzendu ekonomiaren arazoa. Kontuan hartu behar da, Clintonek bere kanpaina "Aldaketaren alde" slogana plazaratu duela (ez al zaizue "Por el cambio" beste slogan bat gogora etorri Clintonena entzuterakoan? Ondo funtzionatzen du esaera horrek, dudarik ez).

Baina, zer aldatuko du Bill Clintonek? Demokraten garaipenari buruz mundu guztian jasotako erreakzioek ez dute berrikuntzarik aurreikusten nazioarteko ekonomian. Krisia Clinton baino haundiagoa da. Aldaketak sortzen badira barruko arazoan eta bertako ekonomiaren aldetik etorriko dira. Guk, Washingtonetik nahiko urrun izan arren, igerriko genituzke Clintoren izendapenaren ondorio horiek. Danok dakigunez, USA hozten denean, Europak eztl.

German Larrañaga



TOSHARE

**ILEAPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.**

Artekale 29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

KAILASH
**ZENTRO
ESOTERIKOA**

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean
diplomaturatutako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)



zumelaga
JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA
Tfnoa: 76 20 21

ederju

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA

Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

HAGIN KLINIKA

Idoia Iriarte Irueta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

OILAGORRA Taberna

Barrenkale 21, BERGARA

MAHER Biltegiak L.E. Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

AGIRREBEÑA

*Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria*

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

GANBARA

Berezitasunak:
*Pintxoak eta
kafea kremarekin*


Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

T
B
E
R
N
A



□ Zaharrak kantuan

Astelehenean hasi ziren Jubilatuetan sortu berri den abesbatzaren entsaiuak. **Ines Elorza** eta **Jesus Berroyaren** zuzendaritzapean, 20 zahar inguruk eztarriak *garbitu* eta tenore eta soprano ospetsuenen antzera kantatzeari ekin zioten. Oraindik interesatuta zaudetenok, astelehenean 19.00etatik 20.15etara, eta ostegunetan goizeko 11etatik 12etara egingo diren entsaiuetara ager zaitezkete. Gabonak aldera, gauzak ondo badoaz, emanalditxo bat eskeiniko dute Jubilatuetan. Eta hortik, badakizue, Milango *Scala* ez dago urrun...



□ Kioskero berria

Larunbatz geroztik **Jose Conde** bergarar batekin ezkondu eta gure artean bizi den 32 urteko arrasatearra dugu Plazako kioskoko periodiku eta errebista saltzaile berria. Josek azken 50 urteotan bertan lanean izan den **Kontxita Ugalde** eta **Martina Maiztegi** (22 urtez lanean) ordezkatu ditu eta orain bera arduratuko da munduan zehar gertatzen diren albisteak guregana ekartzeaz.



TXORNO Auto-rekanbioak

Ibargarai, 33 ☎ 76 29 95 BERGARA.



□ **Txirrindulariak oporretan**

Joan den ostiralean 120 pertsona inguru bildu ziren Alzasun Lokatza Txirrindulari Elkarteak aurtengo denboraldiari amaiera emateko antolatutako afarian. Han izan ziren, besteak beste, taldeko zuzendariak, entrenatzaileak, patrozinatzaile ezberdinak, kolaboratzaileak, zaletuak... eta txirrindulariak noski, ondo afaldu eta denboraldiko gora-beherak lagunartean komentatzeko. **Jose Luis Kortabarría "Kaxeta"** elkarteak presidenteak guztion lana goraiatu eta datorren urtean ildo beretik jarraitzeko animatu zituen. Txirrindulariek behintzat berehala ekingo diote neguko prestaketari opor laburren ondoren...



□ **Maastricht protagonista**

Jende dexente bildu zen Bergarako UNEDek pasa den asteazkenean **Maastrichteko Akordioaren** inguruan antolatutako mahai-inguruan. **Bixente Huitzi** moderadore zelaririk, **Francisco Aldekoa** EHUko irakaslea, **Baleren Bakalkoa** ekonomista eta **Felix Soto** Erreferendumaren Aldeko Plataformako kideak beren ikuspegiak eman zituzten eta, horrez gain, entzuleei nahi beste zalantza argitu zieten. Maastrichteko informazio jariora ikusita, enteratzen ez dena interesa ez duelako da...

**Zertan
dihardute
ba?**


MARTIN ARRIARAN



28 urteko bergarar honek

Bergaran jokatu zen Euskadiko Xake Txapelketan lortutako 13. postuak, Salamancan hastear dagoen Espainiako Txapelketan parte hartzeko eskubidea eman dio.


BEATRIZ JIMENEZ



Bergaran bizi den 29 urteko arrasatear honek, 260 punturekin, Euskadiko Kirol Eskalada Txapelketa eskuratu du, Josune Bereziartua beasaindarra (200) eta Alicia Herrera (140) bilbotarraren aurretik.

URRATS
 **Kafetegia**
 lbargaral Tfnoa: 76 52 92
BERGARA

Artekale, 15
 behea.
BERGARA
 ☎ 76 58 86



- SUKALDEA
- ORMA-ARMAIRUAK
- NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIAK
- ATEAK-LEHIOAK

LASKURAIN
FRUTADENDA
 Artekale 4 **BERGARA**
 ☎ 76 46 50

Umore giroan

Krisis denboran, ume baten modua lo elfi

Alkartu ziran bi ugazaba eibartar eta, krisisa gora, krisisa bera, baze-bizen berbetan.

Gauzak estu, itxura danez. Biarra egin gura eta biarrik ez. Eitxen dan biarra, barriz, kobrau ezifi. Eta gañera, jakin barik ilunaldi au noiz amaixuiko dan.

Batek diño:

- Nik 20 biargifi jaukadaz eta zelau biar kontu au arreglau, pentsau ta pentsau, gabetan begirik be etxuak itxitzen.

Bestiak:

- Ara ba, nik 40 biargifi jaukadaz eta etorkizunari begira aifi illun gauzak ikusten jitxuadaz-eze, begixak pegauta moduan jaukadaz lorik ezin-einda.

Onetan zegozela, etorri jakue plentxiatar uga-

zaba bat. Onek 200 biargifi zeukazen. Galdetu zutsen beste bixak:

- Ik be eztok ba, lo asko eingo gaurko giro beltz onekin!

Ta onek erantzun zetsen:

- Ara ba, nik ume baten moduan, lo eitxen juat.

- Ume baten moduan? Zelan leikek?

- Erraza, mutilak. Alako ardura aundixakin oera juaten nok, eze, ordubetik ordubetera, esnatu eitxen nok. Esnatu, negar eifi eta barriz luak artu. Eta olaxe ordu guztietan.

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Hiriguneko osagarriak: egoitza publikoak

Benetan publikoa izan den bakarra eliza da, elizan batzen ziren eta XVI-XVII. mendeetan Batzar egoitzak egiten hasten diren arte, hiriko ordezkariak.

Bergarako kasuan, eliza hau Ariznoako San Pedrokoa izan da. Hiria erakialdean dago, Gasteiztik Deba eta Mutrikura zihoan errege bideak erabiltzen zuen hirirako sarre-ra nagusiaren ondoan.

Eliza, bada, Erdi Aroko udal ekintzen bihotza da, eta izango da Aro Modernoa ondo aurreratuta egon arte, orduarte ez da eta, bere erlijio zereginetara mugatuko. Bergarako Batzar egoitza, udal gobernuaren egoitza, espetxe eta alondegia bihurtu zenean, beharizan berriei eusteko, elizako egitura aldatu egin zen, eta egokiago zen arkitektura berriaz jantzi.

Egoitza aldatu, eta gotiko euskalduna deitutakoaren arabera, egoitza zaharraren gainean berria eraiki zen.

Bergarako Batzarre etxea XIV. mendeko dokumentuetan

agertzen da, udal gobernu batzarrak "Camara Nueva de Concejo que se pega a la iglesia de San Pedro de Nueva de Vergara" esaten duenean.

Kontzejuko etxea erakialde baino lehenagoko batzarre "[(en el) cementerio de la iglesia del señor San Pedro]-n egiten ziren baina geroago ere egiten ziren elizan.

XVI. mendean, Kontzejuko etxe berriaren eraiketa erabaki zen. Erabakia etxe zaharren egoera larria eta ondorioz egoitzen, batez ere espetxearen, desagokitasuna zirela eta hartu zen.

Horrela, hiriko Batzarre eraiki zuen etxe berria egoitza zela "en medio de la población donde antes eran las casas viejas del dicho Concejo entre la iglesia parroquial de San Pedro y la iglesia de la Compañía de Jesús", hau da gaurko tokian.

A. Basterretxea

KATALAIDE Jatetxea

ASTEBUKAERETAKO MENUA

- Barazki pudina
- Legatz pudina
- Entsalada mistoa
- Askotariko fritoak
 - Arrain zopa
 - Eskalope berezia
 - Txipirotiak
 - Xerra plantxan
- Txuleta pipar hautsaz
 - Tripakiak
 - Postrea


1.300 pzta

Katalde Pol.Ind. ARRASATE



Izarra
elektragintza
Carmelo Aranguren Unamuno

Tallerra: Zubleta 10 behea
BERGARA ☎ 76 54 10
Etxea: ☎ 76 19 99 / 76 10 60





Barrenkale, 3. BERGARA. telf.: 943-765719

**Pintxoak, eguneroko menua eta karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

ARANTZA EGIBAR

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena hau duzue: Sor Juana Ines de la Cruzen benetako abizena **ASBAJE** zen.

ARANTZA EGIBAR izan da aste honetako irabazlea.
ZORIONAK !!

Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste honetako galderari!

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53

**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

Saskibaloia eta eskubaloia taldeak, primeran

□ Futbola

Prefente mailako Bergarako futbol talde nagusiak bana berdinu zuen pasa den igandean Agorrosinen Real Union taldearen aurka. Irundarrak aurreratu ziren markagailuan eta Zangitu jokalaria berdinketaren gola lortu zuen 28. minutuan.

Begararrak sailkapeneko 11. postuan dira 7 puntu eta negatibo batekin eta igandean Anaitasunaren aurka jokatuko dute Azkoirian.

□ Waterpolo

Begarako Igeri Elkarteko waterpolo taldeak 15 eta 4ko emaitzarekin galdu zuen Sestaon. Igandean Gasteizen jokatuko dute.

Begarako saskibaloizaleak pozik egoteko moduan daude aurtengo denboraldian. Bergara K. E. ko talde nagusiak lehenengo maila autonomikoan sekulako hasera eman dio denboraldiari. "Txiki" Oiarzabalek zuzentzen duen taldea iaz igo zen maila honetara, aurten Bergarako taldea konfidantza osoz irten da eta sei partidu jokatu direnean balantze itxaropentsua agertzen zaigu, gure saskibaloilariak lau partidu irabazi eta bi galdu dituzte eta. Pasa den asteburuan Calahorrako kantxa nekezean puntu batez irabazi ondoren, Ariz Basauri taldearen aurka jokatu beharko dute bergarrek larunbatean 6 t'erdietatik aurrera. Partidu hau irabaziko balu



A1 multzoan sailkatzeko aukera handiak izango lituzke.

Eskubaloian lider

Jose txo Muniategik zuzentzen duen taldea lehen maila territorialean lider moduan dago lau partidu jokatu ondoren. Talde honetako jokalaria-

ek urte asko daramatzate elkarrekin jokatzen eta iaz denboraldi bikaina burutu arren ezin izan zuten mailaz igo. Lau partidutik, Jose txoren mutilek hiru irabazi eta bakar bat berdinu dute. Eskubaloilariak oraindik gogotik egin beharko dute lan kategoriaz igo-tzeko.

Gorlako Moto Igoera

Begarako motozaleek Udalaren laguntzaz antolatuta, Gorlako V. moto igoera jokatu da igandean. Proba 10.30etan igeltseriatik irtengo da eta Gorlako bidea 10.30etan itxiko da. Txapelketa bukatzeko igoera bakar bat gelditzen denean, Bergarako hiru gidari punta puntan ditugu: Angel Bidaluze 500 cm³tako mailan lehen postuan dugu eta nahikoa du karrera on bat egitea lehen postua eskuratzeko, Alex Elizburu ere 500ekoan bigarren postuan dago eta Ramon Ambroy ere junior mailan lehen postuan dago, aukera handiak dituelarik bere kategoriako lehen postua eskuratzeko.



Garnish
Bitxitegia

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

Telkar

PHILLIPS SONY
ZERBITZU TEKNIKO

IBARGARAI, 2 ☎ 76 27 11
BERGARA





Los lindos mariposos del jardín

Ez dugu geuk asmatu izena, ez. Izen horixe jarri zion taldeari zortzikote honek. Eta egia esanda ez omen ziren txarrak futbolean "mariposo" hauek bi urtetan izan baitziren Santo Tomas Futbito Txapelketako irabazle Antzuolako taldearen kontra. Honako erretratu hau 1978an aterata dago.

Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara:

Zutik: Sabino Azkarate, Jose Ramon Lasa, Jose Maria Berasategi "Bini" (hil honen 21ean Angiozarko "mariposa" batekin elkartzekoa dena), Gerardo Arregi, eta Pako Osuna.

Makurtuta: Juan Antonio Migura, Iñaki Otaño eta Migel Idarreta.

Estepan Plazaola
Argazkia: Imanol Iriagarai



**ETXEPARE - BILINTX
LIBUBUDENDA**

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

ETXEBIZITZA

Lokal bat alokairuan Iri-
zar 2an.
☎ 76 13 32 / 76 25 97.

Antzuolan pisua salgai,
Ibarra 3, 6.C.an.
☎ 76 62 49.

Bergaran herriaren erdi-
aldean ileapaindegia
alokatzen da. ☎ 76 16 17.

Harrizurin garajea salgai.
☎ 74 30 55/ 74 43 19

Pisua salgai Bidekuru-
tzetan. (5.000.000).
☎ 76 09 36.

Artekalen pisua salgai
☎ 76 55 63. Gaez.

Garajea salgai Espalo-
ian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. ☎ 76 44 65.

Pisu amueblatua aloka-
tzen da Bergara erdian.
☎ 12 12 71.

Espalolan garajea salgai
☎ 76 23 27.

Deustun pisua osatzeko
neska edo mutil euskal-
dun bat behar da.
☎ 76 39 14.

Pisua salgai Martokuan.
80 metro karratu.
☎ 76 14 13 (gaez)

Antzuolan etxebizitza
salgai Errekalden.
☎ 76 60 40.

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. ☎ 76 03 31.

SALDU-EROSI

Koker arrazako txaur bat
salgai (marroia).
☎ 76 56 06.

Citroen AX Image SS-AG
matrikuladuna salgai.
☎ 76 35 50 (gaez) edota
79 82 10 (egunez).

SUZUKI DR BIG motorra
salgai.
☎ 76 50 67. (Ander).

Oinarrizko Heziketa Oro-
korra, U.B.I., B.B.B. eta
Lanbide Heziketako klase
partikularrak ere ematen
ditut.
☎ 76 44 34 (Amaia)

VESPA 200 bat salgai.
Prezio onean.
☎ 76 55 80.

3 atedun Opel Corsa
1.300 GTa salgai (SS-X).
☎ 76 05 92 (gaez).

Eskiatzeko bota italia-
rrak salgai (43a). Berriak,
oso merke!! ☎ 76 38 72 .

Ingeles kurtso bat kase-
tetan erosiko nuke.
☎ 76 54 26.

OPEL CORSA SS-S go-
rrria saigal. Prezio onean.
☎ 76 55 80.

Petrollozko estufa sal-
gai. ☎ 76 50 05.

3 pastilladun eta atzeko
torreta erregulagarria du-
en kitarra berria salgai.
☎ 76 61 99 (Oskar).

Kitarra akustikoa salgai
(15.000). ☎ 76 11 89.

OHoko klase partikula-
rrak: ☎ 76 31 93.

Peugeot 205 XL bat
salgai. 6 urte SS-W.
☎ (945) 27 92 73 (arra-
tsaldez) / 76 05 23 (ga-
uez).

Mintendo berri-berri bat,
3 mando eta joku batekin,
salgai. ☎ 76 56 97.

LANA

Neska behar da etxeko
lanak egiteko. ☎ 76 31 58.

Neska batek etxeko lanak
egin eta umeak zalnduko
lituzke.
☎ 76 45 53.

Emakumezko batek hau-
rrak zalndu eta etxeko
lanak egingo lituzke.
☎ 76 36 06 (Marisol).

Irakasle bat behar da
Deustuko Ingleseko 3.
maila emateko.
☎ 76 26 82 (gaez).

Etxeko lanak egin eta
umeak zalnduko lituzke
neska batek ☎ 76 06 98
(Amaia).

Neska batek etxeko la-
nak egin edota umeak
zalnduko lituzke.
☎ 76 57 38.

Neska batek etxeko la-
nak egin edota umeak
zalnduko lituzke.
☎ 76 60 65 .

Hildakoak

Vidal Kareaga Odrizola
azarok 4, 80 urte

Jaiotakoak

Ana Iruretagoiena Rodriguez
urriak 28

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

IRUBIDE

Taberna

Bazkariak, gosariak,
afariak, etab.

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67

TEMPRA STADIO



ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi **FIAT**


ZERBITZU OFIZIALA

ELECTRICIDAD

ELKAR



ELEKTRAGINTZA



76 00 00